

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udalaren Ebazpena, "udal jabariko herribaso eta herriaren onurako basoetan 2016 urteko ekitaldirako baso ustiapen eta aprobetxamenduen" besterentzea esleitzeko iragartzen duena. I, II, III, IV eta VI loteak

2016ko irailaren 14ko 2139 zenbakia duen alkatetzaren dekretu bitartez ebatzi zen "udal jabariko herribaso eta herriaren onurako basoetan 2016 urteko ekitaldirako baso ustiapen eta aprobetxamenduen" bost lote besterentzeko kontratazio-espeditentea.

1. Entitate Esleitzaila:

Erakundea: Laudio Udala

Espeditentea izapidetzen ari den bulegoa: Laudioko Udaleko, Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lan eta Landa Ingurune Arloa.

Espediente-zenbakia: LI-002/2016.

2. Kontratuaren xedea:

Helburuaz zehaztasunak: baso-aprobetxamenduak.

Banaketa erlo, lote eta zenbakien arabera: administrazio-klausulen pleguan zehaztutako bost (5) lote.

Burutzapen lekua: erabilera publikoko, herri onurako basoak (herribasoak).

Burutzapen epea: 6 hilabete kontratuaren sinaduratik hasita

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era:

Izapideak: ohikoak.

Prozedura: irekia.

Forma: besterentze esleipena: goranzko lizitazio bitartez.

4. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua: ondoko bost (5) loteotako bakoitzaren diru-zenbatekoa (BEZ sartu gabe):

1. lotea: Kamaraka-Goikogana: 118.266,72 euro (BEZ sartu gabe)

2. lotea: Urrutxu-Okarantxueta: 201.725,46 euro (BEZ sartu gabe)

3. lotea: Gurutzea: 11.934,58 euro (BEZ sartu gabe)

4. lotea: Landatxu: 104.510,72 euro (BEZ sartu gabe)

6. lotea: Amestui-Atxurdin: 53.455,05 euro (BEZ sartu gabe)

5. Bermeak:

Behin behinekoa: ez da aurkeztu behar.

Behin betikoa: lote bakoitzaren ustiapena esleitzen den aurrekontuaren ehuneko 5. Berme horrez gainera, esleipendun bakoitzak eratu beharko du 600 euroko berme espezifiko, udalaren jabetzapeko landa bideen erabilera berezia arautzen duen ordenantzaren aplikazioan, horretan adierazitako kontzeptuen gainean espezifikoki erantzuteko.

6. Espedientea aztertu, dokumentazioa eta informazioa non lortu: Laudioko Udaletxean (Herriko Etxean). Laudioko Herriko Etxean, Udaletxean, Herriko Plazako 3. Solairuan dagoen Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa Inguru Arloan, 944 034868 telefonoan, iragarki hau ALHAOn argitaratuta azaltzen den egunaren biharamunetik hasita proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

7. Kontratistaren betebeharrak espezifikak: ez da klasifikaziorik eskatzen.

8. Eskaintzen aurkezpena

Aurkezpenerako epemuga: ALHAOn iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hamabost (15) egutegiko egun naturaleko epe barruan. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo laneguna litzateke azken egun hori.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: administrazio-klausulen pleguan adierazitakoa.

Aurkezteko lekua: Udaletxeko, Herriko Etxeko Erregistro Orokorrean, Herriko Plaza 8 zk. - behean, Posta Kodea 01400, Laudio (Araba), eskaintzak aurkezteko azken eguneko 13:00 arte.

9. Eskaintzak zabaltzea: proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo baliiodun eguneko 10:00etan; hori larunbata balitz, hurrengo baliiodun egunean egingo litzateke. Proposamenak Herriko Etxeko 1. solairuko Bilera Gelan zabalduko dira.

10. Proposamen ereduak: lizitatuak aurkeztu behar ditu bere eskaintzak administrazio-klausulen pleguan aurreikusitako proposamen ereduak erabilita eta pleguan bertan adierazten diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

11. Iragarkiak eta eskaintzak aurkezteagatik gastuak: eskaintzak aurkezten dituztenek beraiek ordaindu beharko dituzte dokumentazioa daukaten gutun-azal itxiak eta eskaintzak aurkezteagatik udal ordenantzetan jasotako tasak. Bestalde, esleipendunak ordaindu beharko dituzte lizitazioaren iragartze-gastuak.

12. Mahaia osatzen duten pertsonak: Alkate – udalburuak dekretuz izendatutakoak.

Laudion, 2016ko irailaren 19an

Alkatea

JON IÑAKI URKIXO ORUETA